

IDURRE ESKISABEL

Euskararen biziberritzea eraldaketa sozialeko prozesu luzea da

2025-02-26



PLAZA

Botereaz, hizkuntza-ideologiaz, demokratizazio-prozesuez... aritu zen Idurre Eskisabel 2025eko otsaileko saioan. Hizkuntzaren alderdi sozialari begiratu zion modu integralean, eta are gehiago ere esan zuen: hizkuntzak ezin dira ulertu dituzten ezaugarri linguistikoak kontuan hartuta bakarrik; hizkuntza bat erabiltzea gertakari sozial bat baita beti. Eta, noski, hizkuntza gutxituen testuinguruan, garrantzia berezia hartzen du aspektu soziala lantzeak.

ZAZPI JAUZI

1. Bai, euskararen biziberritze-prozesua eraldaketa sozialerako prozesu luzea da; izan ere, **“eraldaketa soziala” eta “luze” batera doaz beti.** Gizarte-mugimenduetan lanean ari den orok ondo daki hori: poliki goaz, urrutira heldu nahi dugulako (Beti ere, urgentzia duten auziei iskin egin gabe).

2. Asko entzuten da “kultura soziolinguistikoa” terminoa, baina eufemismo bat izan daiteke: azken finean, hizkuntza-ideologiaz ari gara, bete-betean, eta, ondorioz, botere-harremanez. **Hizkuntza eta boterea ezin dira banatu.** Adibidez: euskara biziberritzeko gizarte praktika berriak sortu behar dira, eta horretarako botere-harremanak itzulikatu behar dira.

3. Terminologiari ez diogu behar besteko garrantzia ematen, eta, krisi garai honetan bereziki, oinarriak berrikusteko edo berresteko garaian, funtsezkoa da. Bi adibide:

- Euskarari dagokionean, zer erabili: “normalizazioa” ala “biziberritzea”? Bada, biak, komunikatu nahi dugunaren arabera. Oinarrian, kontzientzia berbera dago.
- Esaten dugunean “hizkuntzak komunikazio-tresnak besterik ez dira”, modu naif-ean jarduteko arriskua dugu. Askoz ere gehiago ere badira hizkuntzak: humano egiten gaituzten “gertakari sozial” garrantzitsuena dira.

4. Hizkuntza beti da praktika bat, eta gizartearen eraldatzeko gaitasuna dauka. Adibidez, “klase-igogailuan” gora egiteko sarri erabilitako estrategia garrantzitsuenetarikoa da.

Demokrazia bera, hizkuntzen/ahotsen birbanaketa bat da; beraz, euskararen biziberritzea demokratizazio-prozesu bat da.

5. Terminologiarekin jarraituta, “kolonialismo” termino arantzatsua baliagarria da gure errealitaterako? Agian, Ibai Atutxaren bidetik, barbarizazio-prozesuez hitz egin dezakegu: **kapitalismoaren sistemak “barbaro” bihurtzen gaitu hizkuntza gutxituetakook.** Eta izaera hori naturalizatu egiten dugu, euskara ez dela noranahikoa edo beti ez dela baliagarria barneratuta. Guk daukagun karga da behin eta berriz konbentzitu behar dugula gure burua hori ez dela horrela.

6. Hizkuntza gutxituetakook **hitz-gabetuak eta ahots-gabetuak gaude,** eta hizkuntza-gatazka egoera konstante batean bizi gara. Egoera horren kontziente izan behar dugu, eta ditugun tresnak erabili, behin eta berriz gaingaitzen saiatzeko.

7. Aurrera begira jarri eta iruditeria berria eraiki behar dugula diogu behin eta berriz. Baina horretarako aurrelana egin behar dira. Adibidez, ez dugu orain arte hainbat bidegilek egindako lana behar bezala ezagutzen, eta **justizia epistemikoa (narratiboa) behar dugu:** gure genealogia ondo ezagutu gabe, ezin dugu etorkizunera begira jarri.